


Aretxabaleta,
1993ko irailak 30

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABAETA




Abade bako mezak

• IGP: hiritarrek parte hartzeko tresna

• San Migelak

• Kirolak: UDA denboraldi barriaren aurrean



Herritarren partizipazioa gestio publikoan

Gure gizartean, giza-baloreen aldaketa bat ematen ari dela nabarmentzen da. Diruak eta kontsumismoak hartu duten garrantzia izugarria da, boluntarismoa eta partizipazioa, al-diz, txarto ikusita daude.

Ikuspegi hau, ondasun eta gestio publikoaren aurrean ere somatzen da; denena dena (ondasunak eta arzoak) inorenak ez direla ematen du.

Ez dirudi aldaketa honekin, Atxabaltako etorkizunak behar dituen giza-kiak, egingo ditugunik. Gaur, inoiz baino gehiago, herritarren konprometua behar da gizarte hobea eta bat eraikitzeko.

Helburu horrek, parte-hartze kontzientea eskatzen du, gai ezberdinen aurrean, alde guztiak aztertzeko eta norberaren pentsamoldeaz, ahal den eta objektiboki lotuz, iritzi bat eraikitzeko gauza izango diren pertsonak behar dira, hau da kriteriodun iritziak edukitzeko kapazak diren pertsonak. Horretarako beste balore batzuetan oinarritu behar dugu gure bizimodua eta gazteen hezkuntza.

Esandakoarekin gizar-

tearen gestio eta bilakearan, partizipazioari jotzea nahi nuen. Egun, dugun sistema politikoaren arabera, hautatzeko edo norberaren burua aurkezteko eskubidea dugu. Horrela gure ideiak eta interesak defendatuko dituzten ordezkariak hautatzen ditugu gizar-tearen gestioa bideratu dezaten.

Baina, gizar-teke bidez, gure inplikazioa eta parte-hartzea haundiagoa behar du izan; gaien buruz informazioa eta kriteriodun iritziak edukiz. Konkreteki Deba Bailaran, hainbat aldiz, aipatu den ardatza, autopista edo bide azkarrari buruz, ematen ari den herritarren parte-hartze prozesu edo inizatibaz hitzegin nahi dut, hau da "Interbentzio Gune Partehartzaileak edo Nucleos de Intervención Participativa" delakoei buruz.

"Interbentzio Gune Partehartzaileak", eztabaida edo desadostasun latzak sortzen dituzten proiektu edo arazo konkretuei irtenbidea bilatzeko asmoarekin planteatzen dira. Gehien bat desadostasun horiek politikoak edo teknikoak direnean herriaren parte-hartze zuzena bideratzeko aukera

ematen dute. Ordezkaripolitikoek edo beste talde batzuen alternatiben aurrean, sortez hautatutako hiritar batzuk, informazio osoa eta ikuspegi ezberdinak jaso eta gero, iritzi edo alternatiba bat eraikitzen dute, hau, hiritarren alternatiba bihurtuz. Nahiz eta alternatiba hau egin beharrekoez izan, agerian dago edozein ordezkari politikorentzako izan daitekeen erreferentzia.

Hiritargoak gizar-te garioan parte-hartzeko era berri hau Alemaniako Unibertsitateetan garatu zen eta "Gizarteaz" enpresaren bitartez heldu da Euskal Herrira. Dogoeneko emaitza positiboak emanda ditu sistema honek Astigarraga eta Idiazabal herrietan. Ulergaitza izango litzateke planteamendu eta bere emaitzen kontra agertzea, hiritarren parte-hartze zuzena suposatzen baitu.

Pertsonalki, gestio publikoan parte-hartzeko era egokia, neutrala eta hezitzaile oso iruditzen zait, beraz positiboki baloratzen dut Jaurilaritzak agertu duen ausardia eta partizipazioa bideratzeko borondatea.


Besteia, Atxabaltan, sistema hau beste arazo batzuetan aplikatu daitekeela uste dut. Hainbat urtetan geldirik dauden gaiak bere lozorrotik ateratzeko bide egokia izan daiteke IGParrena. Adibidez hor dago Urkulu eta bere ingurunea, inongo ordenazio edo kontrolik gabe, bertako ekosistema mantentzeko neurririk hartu gabe, bere egunerik hartutako konprometuz betearazten ez direla, eta paraje horretaz denok gozatzeko bideak jarri gabe. "Tabū" bihurtu zaigu Urkuluren gaia, ez legoke txarto herritarren iritzia ezagutzeko eta batera Atxabaltak duen patrimonio aberats horren etorkizuna eta gozamen zuzentzea.

Koldo Azkoitia
EAJko zinegotzia

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelaiak. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoru **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Zer moduz jubilatuen eguna?



**Jabier Bengoa
(Jubilatua)**

Oso ondo pasatu dut, ambiente ona egon da eta datorren urtean ere ez dut galduko egun hau, merezi du eta.




**Maria Unanue
(Jubilatua)**

Ederto; oso ondo, bazkaria ere ederra izan da. Primeran pasatu dut.



**Isabel Gastañaga
(Jubilatua)**

Oso giro ona dago, bazkaria ona izan da eta dantza egiteko ere animatuta egon gara.



**Amadeo Carrasco
(Jubilatua)**

Oso ondo, giro ona, bazkaria ere ona, ezin dugu gehiago eskatu, urtero ederto pasatzen dut egun hau.

KARTAK

Eskerrikasko


Aretxabaletako Abesbatzak, Aretxagazeta aldizkaritik, bazkide berriak lortzeko egin zuen eskabideak izan duen harrera ona, benetan eskertu nahi du.

Gaur egun 35 bazkide berriek eskeintzen dituzten laguntza oso atsegina izan zaigu.


Atzera gelditu den norbait balego, inoiz ez dela berandu esanez, animatu nahi genuke.

ABESBATZA

Gure esker onak



Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Batzordeko eskerrikarria eman nahi dizkie Andramaixetan eta ospatu berri izan diren San Migeletan Herriko Tabernan, manifestazioan eta, euren laguntza eta elkartasuna eskeini duten guztiei.



Era berean eta Herriko Presoen izenean har ezazue eskerrik beroenak jai egun berezi horietan, eurekin gogoratu eta eskutitz zein telegramak bidali dituzuenok.

Azkenik, Batzorde honek urtean zehar egiten diren ospakizunetara

(enkarteladak batez ere) gonbidatzen zaituzte Atxabaltar guztiok, denon laguntza eta borroka ezinbestekoak bait dira Herriko seme-alabak lehen bait lehen etxera ditzagun.

A.A.B.



IGP: Hiritarrek parte hartzeko tresna

Maltzaga - Urbina errepidearen inguruko zehaztasunak finkatzeko bilera informatiboa egin zen Atxabaltan. IGPa zer den, Donostiako ikertaketa sozialen laborategiko kide batek azaldu zigan.

Bileran argi eta garbi utzi gura izan zuten Deba Bailara zeharkatuko duen errepidea, beharra balego bakarrik eroango litzatekeela aurrera, horrela izanda, ze eratako errepidea egin eztabaidatu beharko litzateke;

teke; autobidea, autopista edo beste bide alternatiboren bat.

Sistema berri horrekin jendearen partehartze zuzena eta eragilea bultzatu gura da. Beste sistemekin konparatuz 4 desberdintasun nabarmendu zituzten:

-1) Herritarrei informazioa ematea dute helburu.

-2) Informazioa emanda gero, herri afektatu bakoitzetik hainbat jende aukeratuko da, notario baten laguntzaz.

-3) Jende neutrala izango da.

-4) Partehartze erreal da, jendeak dioena ustez aintzat hartuko da. Deba Bailara, Donostia eta Gasteiz inguruko 350 pertsona aukeratuko dituzte, 25 taldetan banatuta egongo dira, honez gain eztabaidatzeko azpitalde batzuk egingo dituzte 5 pertsonaz osatutakoak. Ez da ahaztu behar aukeratutako pertsona guztiek soldata bat izango dutela.

Orain informazio eta

pertsonen aukeraketa lanetan dabilta. Urritik aurrera herri bakoitzean buzoi bat jarriko da, proiektuarekiko alternatiba desberdinak jasotzeko asmoz. Ideia barriekin borradore bat egingo dute aukeratutako jendeak onartzen duen edo ez zehazteko.

Programa erabakita gero proiektua aurrera atarateko pertsona egoiak bilatuko dituzte; besteak beste arkitekto, ingeneri....

Maiatzaren bukaeran proposizio eta material guztia batu eta azken informea idatziko da Eusko Jaurilaritzari aurkezteko, baina lehenago aukeratutako herritarren kontrol berezia pasatu beharko du, egon daitezkeen faltsuketak edo arazoak ebitatzeko.

Azkenik, hartuko den erabakia juridikoki ez dela binkulantea izango aitatu zen. Dena dela, urrats guzti hauek aurrera eroan ondoren, antolatzaileek justu dute herriak hartutako erabakia ez dela atzera botaterik izango.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**SAGASTA
ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABAETA



• Joan zen domekan, irailaren 19an haurren eguna izan zen. Talde desberdinak etorri bezain laster, dantzan hasi ziren kaleetan zehar. Gero etxe desberdinetan bazkaldu ondoren, arratsaldeko 5etan berriro plazan elkartu ziren, dantzan egin eta gero denak etxera.

Musika eskola: musikaren alde lanean

Aretxabaletako Musika Eskola orain dela urte batzuk sortu zen, lehen kuartela zegoen lekuan. Musika Eskolatik azken urte hauetan ume eta pertsona nagusi ugari pasatu dira, solfeo edo instrumentoren bat ikasteko asmotan.

Musiko barri eta onak sortu guran 13 irakaslek dihardute lanean gogoz eta gogor. 13 irakasle 136 ikaslerendako. Eskola honetan solfeo urrats desberdinak ikasteaz gain hainbat instrumentu ere lantzen dira. Solfeoa preparatorioan hasi eta 5. urratserraino dago, nagusiendako solfeo ikastaroak ere ematen dituzte, kantu koralaz gain.

Intrumenui begirada

bat emanez, 9 instrumentu desberdin ikasi dezakete bertara gerturatzen diren guztiek: trompeta, tronboia, saxoa, klarineta, perkusioa, flauta, pianoa, akordeoia eta gitarra.

Musika Eskola, arratsaldeko 5etatik 9ak arte zabalik dago, astelehentik eguakotxera arte. Instrumentuak ikasteko ordutegia eta solfeo ordutegia, klaseen arabera izaten da.

Guzti hau jakin ondoren, musika ikasteko gogo baduzu, denboraz zabalik, oraindik matrikula epea zabalik dago. Informazio gehiago gura duenak, bertako bulegoetara joan daiteke, arratsaldeko 5etatik aurrera.

Zenbat eta gutxiago... hobe!

"Honelako ehundaka ehi-za-postu, pertsona axolagabe eta zibilizatugabeez betetzen dira urtero, ehi-za izenaz ezagutzen den ganberrozeria eginaz, Euskal Herriko mendietan hilketarik lotsagarrienak sortuz.

Parapetu ilada bukaezinak ugariegi dira Gipuzkoako gailurretan, gure zerua zeharkatzen saiatzen diren hegazti migratzaileentzat oztopo krudel bilakatzen direlarik. Postu horietako askok, beraien ehi-ze araudietako ziurtasun arauak ere ez dituzte betetzen; hala eta guztiz Foru Aldundiko Nekazari sailak legez-etu egiten ditu, ingurugiroaren kontrako interes ekonomikoei joko egingez. Labur esanda, legezkatzen dira baina ez dituzte izadiarekiko errespetu arauak betetzen. Garbi gelditzen da, sarritan ofizialtasuna eta justizia ez direla elkarrekin ibiltzen.

Lerro hauetatik, deialdi bat egin nahi diegu izadia maitatzen duten guztiei, mendizale, ekologista eta gizarte osoari esanaz ez dezaten onartu urtez urte parapetu hauek erabiltzen jarraitu. Bat egin faunaren arrazoiarekin. Hegazti migrariak hiltzeko eskubiderik ez du inork, gizatasunaren ondare izaten jarraitzen dutelako, nahiz eta oso legezatuak izan ehizarako baimenak, postuak eta horien subasta lotsagarriak."

Deba Garaiko EGUZKI, EKI, MENDIA BIZIRIK, AMILOTX

• Urriaren 3an Ordizian kilometroak egin behar direla eta, Beinkek autobusa antolatuta du. Urteera Azben izango da goizeko 9etan. Kilometroetako lema "Geurea maratoia da" izango da eta maratoi hori beretan geurea egiteko jendea animetan dugu horrelako ekitaldi garrantzitsuan parte hartu eta bultzatzera.

• Tril, Beinkeko emakume taldeak, "Zer den emakumea izatea gaur egun" lemapean hitzaldia antolatu du urriaren 5erako, hitzaldia arratsaldeko 6,30 udeletxeko ganbaran izango da. Hitzaldian emakumeei buruzko hausnarketa esparru pertsonal eta publikoetan jorratuko da. Emailea Amaia Vazquez psikologoa eta sexu hezitzailea izango da.

Leinz Udal Euskaltegia ikasturte barriari begira

Leintz udal euskaltegiak hasi du 1993-94 ikasturtea. Hori dela eta izena eman duten ikasleak eta klasean dabiltzan ikasleei buruzko datuak eskainiko dizkizuegu.

IZENA EMAN DUTEN IKASLEAK:

Aretxabaletakoak: 69

Eskoriatzakoak : 39

IKASLE BARRIAK

Aretxabaletakoak: 31

Eskoriatzakoak : 20

IAZ IBILITAKO IKASLEAK

Aretxabaletakoak: 38

Eskoriatzakoak : 19

KLASEAN HASI DIREN IKASLEAK:

Aratxabaletakoak: 60

Eskoriatzakoak :30

IKASLE BARRIAK

Aretxabaletakoak: 19

Eskoriatzakoak : 14

IAZ IBILITAKO IKASLEAK

Aretxabaletakoak:41

Eskoriatzakoak :16

klaseak emateko 9 talde osatu diira, horrela banaturik: 1. urratsean 2 talde daude-goizez eta arratsaldez, 2.urratsa emateko talde bat dago eta klaseak Eskoriatzan ematen dira. 3. urratsean talde bi, baita goizez eta arratsaldez(Eskoriatzan) ere, 5. urratsean talde bat, 7. urratsean beste bat, 8.ean ere bai eta alfabetatze mailarako beste talde bat osatu dute

Bide batez jakinarazi gura dizuegu, klaseak hasita egon arren, norbait interesaturik balego, oraindik garaiz dagoela izena emateko.



Denondako ikastaroak

Urrirako Aretxabaletako Kultura Batzordeak 5 ikastaro antolatu ditu, gura duten pertsona guztiari zuzenduak.

Eskulanean ikastaro bi izango dira. Lehena urriaren 5ean hasiko da: Piedad Romanek martizen goiz eta arratsaldez emango du, goizetan 9etatik 12ak arte eta arratsaldetan 5etatik 8ak arte. Piedadek taracea, igeltsua, alabastina eta poliuretano teknikak emango ditu. Mila Aki-zuk emango du bigarren ikastaroa urriaren 13tik aurrera, eguazten arratsaldetan 3,30etatik 5,30ak arte eta astelehenean 6,30etatik 8,30ak arte. Papier, igeltsua, estainua, eta abar...

erakutsiko du.

Komiki ikastaroa irailaren 27an hasi zen. As-tegunetan 6retatik 9ak arte eta aste buruetan 5etatik 8ak arte. Irakaslea Manuel Ramone izango da.

Argazki ikastaroa urriaren 13an hasiko da eta Josu Lazkano izango da irakaslea. Astean hiru egunetan izango da ikastaroa eta bi ordu iraungo ditu. Keramika, taila eta sukaldaritza ikastaroak ere emango dira.

Ikastaroek 2.000 pz-tatako kostua izango dute, Gazte Txartelarekin 1.000 pzta. Izen ematea edo informazio gehiago gura duenak kultur etxetik pasatu daiteke, edo 790105 deitu.


**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
☎ 79 10 60



**EGUZBIGRAF
INPRIMATEGIA**

**Aldizkariak
Inpresoak**

Bulegoko materialak

Basabe poligonoa, F-0-4 Tfnoa: 79 29 41 - Faxa: 79 18 44



Jubilatuen eguna

Joan zen zapatuan, eguraldiak lagundu ez bazuen ere jubilatuek euren eguna ospatu zuten.


Egun hau hasteko, lehenengo salda euki zuten Basotxon, ondoren 12etan Aretxabaletako parrokiaren meza eta azkenik bazkaria.

Bazkarian 380 bat

jubilatu elkartu ziren. Umorea ez zen falta izan eta batzuk urte guztian zehar ikusi ez zuten laguna ikusi ahal izan zuten. Bazkalostean, giroa alaitzeko Kintanilla soinujoleak dantzaldia eskaini zuen, eta batek baino gehiagok aprobetxatu zuten dantzan egiteko aukera.



Domekan, barriz, jubilatuen III. Ibilaldi Neurtua egin zen Atxabaltan. Bertan Gipuzkoako 480 jubilatuek elkartu ziren, Otalazelain hasi eta herriko plazan bukatu zen ibilaldia egiteko. Eguraldia ondo portatu zen.



Obrak hasi dira Ibarran

Ibarran egingo den etxebizitzaren eta kirol instalakuntzen poligono barriko obrak hasita daude. Lehenengo fase ho-

netan, bide barri bat egingo den hasi dira, Lanbide Eskolatik hasita Apotza-Etxebarriera doan bideaz bat egingo duena.




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Atxabaltako "Okila" taldea orain dela hiru urte sortu zen. Euren afizioa egurra lantzea da. Okila taldea Beinkek egin zuen ikastaro baten bitartez sortu zen. Josu Mendieta ikastaro horretan apuntatu zen eta orain denbora asko ematen du egurra lantzen. Afizio hori gertuagotik ezagutu ahal izateko eta Okila taldeko partaideek zer egiten duten jakiteko, Josu Mendietaekin egoteko aukera izan dugu.



"Gauzak ikasi, eginez ikasten dira"

• Noiztik datorkizu afizio hau?

Betidanik gustatu izan zait talla munda. Ahal nuen denetan erakustaldietara joaten nintzen eta ikasteko aukera izan nuenean birritan pentsatu barik apuntatu nintzen.

• Zelan hasi zinen?

Beinkek talla ikastaro jarri zuen, izena eman nuen eta ikastaroa bukatu zenean han ibili ginenok Okila taldea sortzea bururatu zitzaigun, ikasi genuenaz jarraitzeko asmoaz.

• Zein izan zen zure maisua?

Maisua Jose Ugarte izan zen, bera mondrauetarra da. Lehen urratsak beraz, berarekin egin nituen; gero ikasi, ikasi gauzak eginez ikasten dira, dena dela, oraindik ikasten gabiltza.

• Ze prozesu dauka egurra lantzeak?

Lehenengo ze pieza egin pentsatu behar da, gero pieza markatzen da eta hortik aurrera egurra lantzen hasi behar da. Egurra lantzeko orduan gauza asko hartzen dira kontutan; ze herramienta erabili, ... prozesu luzea da.

• Zenbat denbora dedikatzen diozu?

Zehatz-mehatz zenbait ordu sartzen ditudan ez dakit, baina ordu asko direla esan dezaket.

• Garestia da egurraz lan egitea?

Egurra bai, oso garestia da, baina behar ditugun egur zatiak handik edo hemendik lortzen ditugu, beraz afizio honek ez digu hain garesti urteten.

• Zer zabilta egiten orain?

Erloju bat egiten nabilt.

• Ikastarorik ematen duzue?

Bai, oraintxe ikastaro batekin hasi behar dugu, urriaren 13an hasiko da.

• Gatxa da?

Gatxa baino gehiago ordu asko sartu behar dira eta pazientzia euki behar da.

ANGELINES
Autozerbitzua

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

MATIKUA
TABERNA

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

AITZIBER
NIÑOS

• Umeentzako moda
• Amagaia

Lezama Merkatal Zentruan

U.D.A Elkarteak, denboraldi berri bat hasi duela eta, bertako berriak eta nobedadeak jakiteko asmotan, Eduardo Altube U.D.Ako lehendakariarekin egon gara berbetan. Eduardo Altubek eta bere direktibak hiru urte luze daroate U.D.A.n.



U.D.A Emakumeen futbol taldeak, urriaren 2an hasiko du aurtengo liga. Ligak, martxora arte iraungo du eta bertan, U.D.A taldeaz gain, beste 12 talde egongo dira: Mondra, Zumaia, Aloña Mendi K.E... Lehenengo partidua, urriaren 2an etxean jokatuko dute Aloña Mendi K.E.-aren aurka.

U.D.A denboraldi barriaren aurrean

• **Zenbat talde daude aurten U.D.A Elkar-tearen barruan?**

• Futboleko U.D.A Elkarteak 5 talde daude eta beste 5 talde ALMEN K.E.-U.D.A koordinadoran. Guztira 200 pertona baino gehiago mugitzen ditugu. Pelotan oso ondo dabilta lanean umekin eta 25-30 ume inguru mugitzen dituzte. Atletismoan, atleta gehiago hartzen gabilta eta horretarako kanpaina barri bat hasi dugu. Joan zen urtean pentsatu baino atleta guxtiago agertu ziren. Azkenik mendiko taldea daukagu eta honetaz gain txirrindularitza, baina azken hau U.D.Ako direktibak egiten duen lanetik apur bat aparte dago, baina Elkarre barruan dago.

• **Guzti horretarako, ze presupuestu daukazu?**

Urte horretarako 93-94 denboraldian eta goian aitatu ditudan talde guztiendako 9.100.000 pztatakoa

da.

• **Orain, futboleko sartuta, zeintzuk izan dira aurten taldean al-tak?**

• 5 barri daukagu aurten lehenengo taldean eta denbora laburrera beste bat egiteko asmoa daukagu. 5 barriak honako hauek dira: Txus San Andresetik etorria, Xabi Eskoriatatik, Jon Diaz Arrasatetik, Amadeo Kilimonetik eta orain arte taldean ez dena egon eta eguenean fitxatu genuena Imanol atezaina da. Baina oraindik gure fitxaketak ez ditugu bukatu, momentu honetan aurrelari batekin gabilta berbetan.

• **Zein da zuen helburua 93-94 denboraldian?**

• Gure helburua sailkapen ona eukitzea da. Direktiba barruan konsziente gara talde ona daukagula eta aurtengo denboraldian gauza politak egin daitetzkeela, baina azkenean futbola zortea eta lana da.

• **Bigarren taldeari**

eta emakume taldeari buruz zer esan dezakezu?

• Bigarren taldearekin gauza garbi daukagu, lehenengo talderako jokalaririk ataratea. Joan zen urtean 3 jokalarik igo zuten; Iker Agirre, Jon Ander Larrinaga eta Kerman Sagastak.

Neskei buruz zera esan dezaket, gure helburua urtero sailkapenean gero eta gorago egotea da.

• **Noiz arte direktibana?**

• Denboraldi honen bukaeran garbi utzi gura dut utzi egingo dugula. Aurtengo gure 3. urtea da, normalean 2 urtetarako hartzen da, baina ekainean egin genuen asanbladan inor aurkeztu ez zenez, barriro urte beterako jarraitzea erabaki genuen. Baina aurten eta elkarriketa hau aprotxatuz zera esan behar dut, datoren urtean direktibako guztiok utzi egingo dugula Elkarre.

Iñigo Roldan, Atxabaltako txirrindulariak, bigarren garaipena lortu zuen Aragoiko itzulian. Sprintean bukatu zen lasterketa eta Santos Gonzalez txirrindulari madrildarra gaituzti ondo-ren, Iñigo izan genuen probako jaun eta jabe. Bide batez gogoratuko dugu erregulartasunen saria ere berak eskuratu zuela. Zorionak!

Atxabaltako zenbait auzotan, hainbat herritar izan ditugu uztail eta abuztuan zehar "abade lanak" beteten. Pertsona horiek ez dute abadeekin zerikusirik, baina auzo horietan ibiltzen den abadearen oporrak zirela eta, domekero mezarekin jarraitzeko sistema barri horren alde egin zuten apostu.



Herritarrak abade lanetan

Lan altruista eta benetan betegarri honetan, besteak beste, Martin Zaloña, Oier Etxebarria eta Mirari Altube ibili dira.

Meza emateko modu berri hau herritar batzuk eta abadeak egin zuten batzak batetik dator. Mikel Egizabalek, Atxabaltako abadea, domekero auzoetan meza ematen du, baina udako oporrak zirela eta, domekeroko meza ez eteteko zozter egin behar zela pentsatu zuen. Horrela bada, herritar batzuegana jo eta ideia berri hau martxan jartzea erabaki zen.

Borondate osoz lanean jardun duten pertsonak ez dute prestakuntza berezirik izan, "ez dugu prestaketa berezirik egin izan ere lehen aldia izan delako horrelako ideia bat martxan jartzen duguna, gainera denbora gutxi izan dugu prestaketak egiteko.

Guri abadeak irakurgai batzuk eman zizkigun eta horietaz baliatuz, gehi auzotarren nahiak kontutan hartuta, zela edo hala aurrera atera dugu"

Hasieran auzo lan honetan jarduteko auzo bakoitzeko kide bat aukeratzea pentsatu bazen ere, bilera batzuen ondoren kaletarrak izango zirela erabaki zen. Beraz, lau kaletar horiek uztail eta abuztuko ia domeka guztietan Galartza, Areantza eta Mendiola aldean ibili ziren abade lanetan.

Meza horiek bazituzten desberdintasunak ohizko mezarekiko: "ezin genuen kontsagraziorik eman abadeak ez garelako. Gaintekoa auzotarrarekin erabakitzen genuen, zer kantatu eta irakurri".

Meza egituratzeko, arzapizkuak igandetarako prestatzen dituen irakurrietan oinarritu ziren.

" Meza emateko modu berri honen ideia herritar batzuk eta abadeak egin zuten batzar batetik sortu zen"

Irakurgai horiek irakurri eta mezari nolabaiteko jarraitpena emateko lagungarri zituzten. Esan beharra dago eurek egiten zutena ez zela Elizan abadeak esaten duen sermoia bezalako.


Jendea aukeratzeko ez zen arazorik egon, "gehienak parrokia inguruan gabitzen jendea gara, konfirmazioan edo elizarako joera handia dugunak. Komentatu zigutenean besterik barik izena eman genuen. Oraingoan geu izan gara, baina beste edonor izan zitekeen".

Auzotarren erantzuna ere uste zena baino hobea izan zen, "jendea beste domeketan moduan joan zen elizara, edadeko jendea behar bada ez zegoen guztiz konbentzita, baina azkenean onartu egin zuten eta domekeroko ziztan hantxe elkartzen ginen denok".

Meza emateko era berri honek gerora begira jarraitasuna izan dezakeen proiektua izan daitekeenez, Mikel Egizabal abadearengana jo dugu bere iritzia ezagutu eta eliza katalikoan zer nolako aldaketa suposa dezakeen jakiteko.

• Zer deritzozu auzoetan uztailean meza emateko eroan den sistema berriari?

• Berez ona dela uste dut. Alde batetik ondo fun-



"Esperientzia hau ez da abadeon kontua bakarrik izan"

tzionatu du, bestetik aurreneko esperientzia izan arren, jendea gustora geratu da eta etorkizunari begira ere herritarrek aurrera eroan dutena soluzio bat izan daiteke.

• Meza modu horretan emateak, eliza katalikoarendako mezak duen zentzua galtzea ez du suposatuko?

• Lehenik eta behin esan beharra dago apai-zok ematen dugun meza eta auzoetan herritarrek eman dutena desberdinak direla. Gauza bat hitzaren liturgia da eta beste bat eukaristiaren ospakizuna.

Hemen Euskal Herrian eta Espainia mailan ez gau-

de ohituta horrelako esperientzietara, baina misioetan osteratankera honetako mezak ematen dituzte. Gu meza abarearekin entzutera ohituta gaude baina honek ez du esan nahi aldaketak onarezinak direnik.

• Meza herritarrek ematea abadeok erabakitzuten kontua da?

• Hau ez da abadeon kontua bakarrik izan. Argi dago kristau elkarte baten egin beharra nola edo hala bere sinismenak ospatzea dela. Sinismen horiek kaleratzeko hitzaren liturgia dago. Horrela bada, eukaristiaren liturgia egin genazakeen bakarrak abadeok

garen bitartean, hitzaren liturgia eliztarren esku dago.

• Ze auzotan ibili zarete herritarren meza ematen?

• Sistema hau jarri aurretik bilera bat izan genuen auzoetako ordezkariekin. Gellao eta Galar-tzan eurok arduratuko zirela esan ziguten, beraz gehien bat bi ingurutan ibili gara; Arkarazo eta Mendiola eta Azatza inguruan.

Esan behar da auzokideak oso gustora geratu direla meza horiekin eta aurrera begira esperientzia positiboa izan daiteke.

• Etorkizunari begira eta abadeen eskazia ikusita, aurrean martxan jarri duzuen bide posiblea izan daiteke?

• Sistema hau behar eraginda bultzatu genuen. Hilabeteko oporrak hartu behar genituela eta auzoetako abade barik geratu behar zutela konturatuta proposamen hau bultzatu zen.

Etorkizunari begira bide ona edo txarra izango den geroak esango digu.

Orain argi dago eliz inguruko giroa aldatu dela. Iraganean eliza eta herria bat zirela pentsatzen genuen. Orain bereiztu egiten ditugu, elizara doana konbentzitututa doa eta modu berean ez doanak askatasun osoa du eta bai jarrera bat zein bestea onartu egiten dugu, gaur egungo gizarteak dituen hainbat aldaketatilik hau beste bat da.

"Etorkizunari begira bide ona edo txarra izango den geroak esango du"



II. Mila Urbanoa

San Migeletako ekintzei hasiera emateko, II. Mila Urbanoa izan zen Durana kalean. Ekintza honek joan zen urteko besteko exitoa euki zuen eta jendetza haundia elkartu zen Durana kalean. Antolatzaileak U.D.A eta Almen K.E izan ziren.

Lasterketa 5 karrera desberdinetan egin zen. Lehenengo infantil neskek urten zuten, irabazlea Maite Fuentes arrasatearra izan zen, bigarrena Agurtzane Azkargorta Almen-U.D.Akoa eta hirugarrena Olatz Pagaldai Almen-U.D.A taldekoa. Infantil gizonzkoetan Mikel Arruti

izan zen irabazlea. Kadeteetan, gizonzkoetan Urko Bedia. Juniorretan 13 partaide zeuden eta irabazlea, Migel Angel Hidalgo barakaldoarra izan zen, bigarrena Edorta Murua Almen-U.D.Akoa eta hirugarrena Alex Saabedra arrasatearra. Seniorretan 8 korrikalaritatik irabazlea Manu Hurtado azpeitiarra izan zen, bigarrena Koldo Anda eta hirugarrena Juan Ramon Petreñas. Senior federatuetan irabazlea Txomin Martin zornotzarra izan zen, ondoren Iñaki Eskalona eta hirugarren postuan Antonio Merinorendako izan zen.



Beinkek antolatutako, bertso jaialdia

Eguakotxean 10etik aurrera, Kirol-Etxean bertso jaialdia entzuteko aukera izan genuen.

Bertan, Peñagarikano, Egaña, Mendizabal, Maddalen Lujanbio eta Igor Elorza izan ziren, gai jairtzaille lanetan, barriz, Jon Iñaki Izarzelai.

Bertso saioaren antolatzailea Beinke izan genuen eta gutzira ber-

tso saio horretan 500 bat lagun elkartu ziren, gazteak eta nagusiak.


Batzuk Kirol-Etxean zeuden bitartean, bertso saioa entzuten, beste askok tabernetako giroa gurago zutela eta, bertako giroaz gozatuko zuten. Beste lagun pila bat Gaztetxean elkartu ziren E.Hren kontzertua entzuteko.



• Zapatuan, eguraldi txarra, baina umorea ez zen falta izan.



• Goizean goizetik txoznak ipintzen hasi ziren, nahiz eta goiz hasi euren lanean, jendeak ez zuen urten eguerdi alderarte.



• 12,30ak aldera jende asko ikusten zen base-rritar jantzita Durana kalean zehar, taloa, gaztaia eta sagardoa probatzeko gogoaz. Horretarako Beinkek, Murrukixok... gertu zeuzkaten txoznak.



• Txoznekin batera, egunak erromeria itxura izan zezan, trikitilariak, gaiteroak eta txistulariak ibili ziren kalean.



• 2,30etarako plazako mahaiak gertu zeuden bazkari herrikoirako eta laster zegoen dena beteta. Bazkaltzeko marmitakoa, gazta eta membrilloa zegoen eta ondoren kafea eta kopa.



• Bazkalosterako joko herrikoiak zeuden antolatuta, baina eguraldiak lagundu ez zuenez ez ziren egin. Baina jendeak ez zuen umorea galdu, eta trikitilariak alaituta dantza ederrak egin zituen jendeak.



• Bazkalostean Loramendi dantza taldekoei tokatu zitzaien txanda.



• Arratsaldean nahiz eta eguraldiak ez lagundu, txoznek euren lekuan jarraitzen zuten

Gabean kirola nagusi

Gabeko 10etan pilota partiduak jokatu ziren. Bertan Korta eta Alonsok 22 eta 15 irabazi zieten Solozabal eta Unairi. Partidu polita izan zen, baina azkenean 22 eta 15 irabazi zuten Alonso eta Kortak. Pilotarien artean Unai Errasti Atxabaltarra ibili zen.

Ondoren, gabeko 11etan bolo txapelketa hasi zen eta irabazlea

Sebastian Altuna izan zen.

Gabeko giroa zapa-tuan ere oso ona izan zen, jende asko eta mar-txa handia zegoen, bai tabernetan, baita Laja eta Landakandarekin ere.

Goizeko bostetan txokolatada eta salda be-roa hartzeko jende asko elkartu zen eta bai gus-tora hartu gainera, ez zen ezer sobratu!

"Talleres Meca" Sari Nagusia

Talleres Meca sari nagusiko XII, txirrindulari lasterketa ikusteko aukera izan genuen domekan.

Lasterketa lehen eta bigarren mailako jubeni-lendako zegoen antolatu-ta.

Ibilbidea 86 kilome-trokoa izan zen eta par-tehartzeko kopurua inoiz baino handiagoa gainera.

Txirrindulariek 10etan eman zioten ha-siera itzuliari Durana ka-lean eta 2 ordu t'erdiko bi-zikleta ginean gora eta

behera ibilita gero 12'30 aldera heldu ziren hel-mugara.

Azken bira jokoan zegoenean Arrasate aldean 6 txirrindularik tropeletik ihes egitea lortu eta Atxabaltako bidea hartu zuten, azkenean 4 txirrindulariren arteko lehia bizia ikusi genuen eta sprintean azkarrena Lagun Onak taldeko Joseba Bikendi izan zen, jarraian Asier Osinalde eta Aitor Llodio helmuga-geratu ziren, azken hau Dorletako Ama talde-koa.




Atxabaltako banda

Meza aurretik Atxabaltako bandaren kalejira alaitu zituen gure kaleak.

Jendeak elizatik urten zuenean, Atxabaltako bandako partaideak gertu zeuden kontzertua

emateko. Bandak 7 pieza desberdin jo zituen. Gustora entzun zuten kontzertua han bildutako guztiek.

Arratsaldean barriro bandaren kalejira entzuteko aukera izan genuen




• Goizean jendeak interes handiaz jarraitu zuen bandaren kontzertua argazkian ikusten denez.



Jaien bukaera

Jaiei bukaera ona emateko, ze hobeto Saltsamaltza taldea baino. Jende ugari elkartu zen Durana kalean dantzatzeko, arratsaldeko 7etatik 11ak arte. Zaparrada ere izan genuen bitartean, baina hala eta guztiz ere, jendeak dantzari jarraitu zuen.

Eguraldiak ez du batere lagundu jaietan, baina hala eta guztiz ere, jendearen umorea aitatu beharrekoa da, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, umoreak ez zuen huts egin.



• Arratsaldeko 3'30etan 51 bikotek izena eman eta 4retan mus txapelketari eman zitzaion hasiera. Orduak pasatu ahala eliminatuz joan ziren partaideak Iturbe- Moja bikotea eta Lan-Andres bikotea aurrez aurre geratu arte. Bikote bi horien arteko norgehiagokan Lan-Andres bikotea nagusitu zen.



Filosofo zaharrak zioenez ez gara inoiz ur berdinetan murgiltzen. Noizpait ur tantoetan utzitako gure aurpegi irudiak hor non-bait ibiliko dira, eta ez dira berriz itzuliko. "Urak dakarrena, urak daroa, eta beti, gu hemen".


XIX. mende bukaeran, ume hauek, orduan pasatzen zen erreka ur tantoetan markatu zituzten euren aurpegiak, eta non ote daude?. Non tantakak, non ura eta non haurrak?.

Zubipeko ume hauek ez zuten inoiz pentsatuko herrikerreka garbiak, gaur ezagutzen diogun kolorez aldatzeko ahalmena izan zezakeenik. Zubiak, Arratabe jauregiko jardina eta errekaldearen bestaldea lotzen zituen. Argazkian, ezkerredera izango litzateke gaur egungo udal-etxe jardina. Oraindik zubi-buruaren aztarnak ikus daitezke. Udal-etxe izan aurretik hemen jaiotako

Otazu hirukiak ez zuten hau ezagutu. Hiruki hauen jaiotza, benetan aipagarria izan zen. Garai hartan hirukiak jaiotzea aparteko gertakizuna baitzen.

Gauza bitxi bat gertatu zen. Errespetu guztiz konstatuko dugu. Hauen amari erditze garaia heldu zitzaionean Aretxabaletan zeuden, oporretan. Jaio zen lehena, eta han abiatzen da, aita Bainuetxeraino kanpoko familiakoei berria ematera (Herrian, Bainutxeko telefonoa besterik ez zegoen). Hartu bizikleta eta badoa. Itzultzerakoan, han non, bigarren bat ere jaio zaien. Hartu berriz bizikleta, eta goraino, Bainuetxeraino. Berriz itzultzerakoan, hirugarrenaren berri ematen diote. Hau sustoa!. Utzi bizikleta etxe atarian, eta ez zen gehiago mugitu. Bada ezpada ere!.

Horrelako zerbait gertatu zen Ugastegiko baserri galdu batean ere. Bertako amari erditze garaia heldu



zitzionean, gizona kalera ino jaitzi eta medikua zaldi gainean harturik baserrira abiatu zen. Orduan ez zegoen inolako indar elektrikorik eta aukera bakarra kandelak ziren. Etan han hasten da mediku hori lanean, amandre zaharrak kandela eusten zuen bitartean. Eta han ateratzen da lehenengo mutikua. Hango poza!. Hango zorarena!. Halako batean, beste negar hots bat.

- Zu, beste bat! Oin-guen neskia!.

- Aiba la letxe! Hau

markie!.

Handik zati batera, beste negar hots bat.

- Itxoizu, itxoizu! beste bat dator ta.

- Zer? Beste bat? Zu amandre, kendizu kandela zarroi, honeik tximeleten pare argittara ekin ddie eta.

Ez ziren txantxetakoak lehengo jaiotzak. Ez horixe.

**A. Antxia
I. Urreta**

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteke eguakotxa baino lehen.


• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fracak zozketatuko dira.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iturria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Elizabarriko iturria)

Aurreko lehiaketaren irabazlea: AINARA URALDE. Zorionak.



Erantzuna:.....
Izen-abizenak:.....
Helbidea:.....
Tfnoa:.....

Udazkena, beste- rik ez



J.J. Aretxaga

San Migelekin batera euria, eguraldi hotzak eta arratsalde motzak heldu dira, ziklo bat bete da eta beste batean sartu gara: udazkenean gaude. Sasoi ona izaten da zinera joan eta denbora zelabait pasetako, domeka arratsalde tristeak batez ere. Datorren zapatuan hasiko da aurtengo zine tenporada eta hasterako pelikula ona ekarri dute: **Dracula**. Egia esan, pelikula hori ez nioke **Jose Lonbideri** gomendatuko. Aurreko batean kontatu nizuen enterratzailea jubilatuta zela, ba, bere partez Jose Lonbide hasiko da lanean. Herriko kanposantuko lanekin arduzteaz aparte, auzoetako kanposantuak ere zainduko ditu.

Auzoak aitatu ditugunez, (nahiz eta gure herriko auzoak izan ez), esan behar **Apotza** eta **Gellao** auzoak lotzeko bidea egin dutela. Bide zabala eta primerakoa, itxuria, Maltzaga-Urbina autobidearen ensaio bat da.

Herriko Ibarra futbol-kanpoan astean zehar partidu asko jokaketan dira eta zelaia zaintzeaz **Iñaki Calvo** arduratu da orain arte, baina badoa, bere lana txukun eginda gero.

Ziklisten denboraldiak bukatzeko gutxi falta du eta zurrumurruek asko izaten dira, txirringulari hau beste talde horretara joan dela eta horrelakoak. **Xabier Lazpiur** atxabaltarra ere ez da libratu, Euskadi Fundazioak fitxatu du datorren urterako.

Aurtengo San Migelak ere joan dira. Eguraldia ez zen oso ondo portatu, baina, bueno, ondo pasetako gogoia dagoenean euriak ez du hainbeste bustitzen. Jaietan betikoa: umore ona, musika, ligeak, mozkorrak, zarata, apurtutako kristalak, automobilak azera gainean... Baina gabetako martxa ez da dena, jubilatuek ere primeran pasatu dute. Eta gainera eguraldiak errespetatu egin zituen domeka goizean. Gipuzkoa guztitik etorritako jubilatuek elkartziren martxa erregulaturako. Atxabaltatik 16 jubilatuta joan ziren lau taldetan banatuta. Lehehengo taldean: **Donato Urrutia** (zaharrena, 84 urte ditu), **Manuel Gorostiaga**, **Clemente Alberdi** eta **Jose Biain**. Bigarren taldean: **Joakin Lizarralde**, **Jabier Bengoa**, **Jose Mari Gorroño** eta **Bixente Urkia**. Hirugarren taldean: **Domingo Larrinaga**, **Dominica Garmendia**, **Emilio Garro** eta **Maria Josefa Iturrospe** (senar-emazteak). Lauugarren taldean: **Antonia Juanansoro**, **Fernanda Berasaluze**, **Amaia Agirregabiria** eta **Brigida Belategi**.

Beinkek eguakotxean bertso saioa antolatu zuen eta egia esanda gehiago espero nuen. Beinkekoek propaganda egiteko ere aprobetxatu zuten jaialdia, bazkide heldutxoagoak behar dituztela kantatu zuen **Peñak** eta ni ere bazkide egitea erabaki dut. Gainera Beinkeko Tril emakume taldekoek egindako taloak ederrak zeuden. Murruxoko odolosteak eta gaztaia ere bai.

2

ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman: "DRACULA" **filmea**.

3

DOMEKA

- Zaraia Mendi. Taldea: **Leungara**.

- Zikloturisten urteera: **Atxabalta - Oñati - Udala - Descarga - Bergara - Atxabalta**. (56 Km)

- Murrukixo Mendi-

zale Elkartearen urteera: **Ordizira**, kilometroak.

- **Kilometro ak, Ordizin**.

- Futbol partidua: U.D.A - Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Zaraia zineman, arratsaldeko 4,30etan: "EL LIBRO DE LA SELVA" eta 7retan "DRACULA" **filmeak**.

9

ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman: "PERDI-

DOSEN AFRICA" **filmea**.

10

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Taldearen urteera berezia, irailak 9tik 12ra**.

- Arratsaldeko 7retan eta 4,30etan: "PERDIDOS EN AFRICA" **filmeak**.

12

MARTIZENA

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan: "SISTER ACT" **filmea** Zaraia zineman.

13

EGUAZTENA

- Okila taldeak antolatutako **taila ikastaroaren hasiera**.

- **Eskulan eta argazki ikastaroaren hasiera**.

ARETXAZOKA

Lana

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O, REM eta U.B.Iko mailetan. Interesatuak telefonoz honetara deitu: 79 50 39.

- Emakume esperientzidunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 60 18.

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kalean. Dei ezazu 79 74 95 telefonora, arratsaldeko 8,30etatik aurrera.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 02 73.

- Pisu bat alokatzen dut Aretxabaletan, lo egiteko posibilitatearekin bakarrik. 79 59 78.

Etxebizitza

- Telefonikako langile batek pisu bat behar du Aretxabaletan. Interesatuak 79 84 67 telefonora dei dezala.

- Pisu bat alkilerrean behar dut, ez du inporta amueblatu gabe egoten bada. Interesatuak deitu Copresira, 79 45 00 gaueko 10etatik goizeko 6retara eta Jon Ander Mendietagatik galdetu.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARIAI TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
 TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


HAIZEA AKEITEGIA
 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA


Zatoz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!



 BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 41 21
GATZAGAN

JAUREGI OKINDEGIA (Panaderia)
 Otorara, 10
 ☎ 79 57 47

DORLETA TABERNA
 Loramendi, 10
 ☎ 79 94 15

 **MAPFRE**
 Aseguroak
Angel Zubillaga
 Aseguruen ordezkaria
 Errekabarren,3 20550 ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 11 76

 **MASAILARIAK**
MASAIK ZARIAI
 MASAIK eta OSTEOPATIA
 Loramendi 13 - 1-A
 Tfnoa: 79 71 55

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA

 Cafes la Brasileira
 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda
 Otorara, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

✓ MARY CARMEN ZAPATA DENDA	79 75 42
✓ JOSTEKO OHIAL-DENDA	79 80 90
✓ MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
✓ MARGOA C.B	79 81 43
✓ ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
✓ LEINTZ-ROSI	79 78 63
✓ ERREKABARREN FRUTATEGIA	79 96 43
✓ LUTXI GAZTEDENDA	79 06 56
✓ ERREKABARREN URDAITEGIA	79 75 42

